

BALIO PROPOSAMENA

Pentsa ezazu euri egun horietan non aterkiak eraman arren zure oinak bustita geratzen diren egunaren gainontzeko partean, hotz, heze eta bustita geratzen dira egun osoan zehar, eta etxera iristean ikusten duzu zein zimurtuta geratu diren. Bada, guk egun horiei amaiera ematen dien produktua ekartzen dugu.

Step Dry produktua da, bustitako oinak eta zapatak lehortzeko sistema berritzaile bat, eseri zaitezkeenean erabiltzeko diseinua eskaintzen duena. Eskoletan, lanean, ospitalean edo merkataritza-guneetan, bustitako egunetan zure egunerokoa erosoan izan dadin.

Step Dry-k erosotasuna, erraztasuna eta lasaitasuna eskaintzen dizkizu euri egunetan, eguna jarraitzeko prest egon zaitezen! Dispositibo honek eserleku integratua eta oinetatik belaunetaraino lehorketa osoa egiten du. Lehorketa-prozesua erabiltzailearen beharretara egokitzen da, eta horretarako hiru botoi desberdin ditu, bakoitza hezetasun-maila zehatz baterako. Prozesua amaitutakoan, soinuak abisatzen du erabiltzaileari.

